

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2016ko azaroaren 11an aurkeztuko du

Hermann eta Margrit Rupf Bilduma

Hermann eta Margrit Rupf Bilduma

- Datak: 2016ko azaroak 11–2017ko apirilak 23
 - Komisarioak: Susanne Friedli, Hermann eta Margrit Rupf Fundazioa, eta Petra Joos, Guggenheim Bilbao Museoa
-
- **Herman Rupfek artelanak erosi zizkien Picassori, Braqueri, Deraini eta beste artista batzuei, lan horiek sortu eta gutxira; egile horiekin harremanetan egon zen zuzenean haien ibilbidearen hasieran.**
 - **Rupftarrak lagun izan zituzten Vasily Kandinsky eta Paul Klee, besteren artean; Kleeek, adibidez, lanak oparitzen zizkien egun seinalatuetan, urtebetetzeetan eta Gabonetan, esaterako.**
 - **Gaur egun, Rupf Fundazioak bilduma aberasten jarraitzen du, azkenaldiko artelanak erosiz; hala ere, Rupftarrek bildutako artea, bildumaren muina, aintzat hartzen du eskuratze berriak aukeratzeko.**
 - **Lehenbiziko aldiz erakutsiko da bilduma hau, 1907 eta 2016 arteko lanak dituen, Espainian.**

Hermann eta Margrit Rupf Bilduma hartuko du Guggenheim Bilbao Museoa. Bertan 70 artelan egongo dira: artearen historian eragin handia izan duten XX. mendearen lehen erdialdeko artisten lanak —bestek beste, Pablo Picasso, Georges Braque, Juan Gris, Fernand Léger, Paul Klee eta Vasily Kandinsky— eta gaur egungo artista garaikideenak uztartuko ditu. 1963an, Hermann Rupf zendu eta urtebetera, Henri Laurens-en *Fruitu ontzia eta pipa* (*Comptoir et pipe*, 1918) eskuratu zuen Fundazioak, artista horren eskultura eta paper gaineko lanen multzoa osatzeko. 1964an Hans Arpen erliebe bat erosi zuen (307. aretoan ikusgai).

1990eko hamarkadan, estatubatuar artisten lanak —Donald Judd (307. aretoan ikusgai) Joseph Kosuth, Brice Marden, Ad Reinhard eta James Turrell, besteren artean— eta europarrenak —Piero Manzoni (307. aretoan), Enrico Castellani (307. aretoan), Lucio Fontana (307. aretoan) eta Christian Megert (307. aretoan), besteak beste— erosi zituzten. Minimalismoaren eta ZERO mugimenduaren ordezkarien lan sorta biltzea lortu zuen Fundazioak; horrela jatorrizko bildumaren jarraipen interesgarria egin zuten, arte konstruktibistaren eta kontzeptualaren aldeko joera antzeman baitaiteke hasieratik.

Rupf Fundazioa 1954an sortu zuten, bildumaren artapena, irmoketa eta zabalketa ziurtatzeko. Gaur egun azkenaldiko artea eskuratzen dihardu; hala ere, Rupftarrek eskuratutako lanak, bildumaren mamia, aintzat hartzen du. Erakusketa honek agerian ipintzen du Herman eta Margrit Rupf Bildumak ibilbide koherentea izan duela, bai eta bere garaiko artearen erakusle dela.

Lehenbiziko aldiz erakutsiko da Espainian: 1907 eta 2016 artean sortutako artelanen aukeraketa zabal bat jarriko da ikusgai.

ERAKUSKETATIK IBILBIDEA

305. aretoa

Aretoa honetan Hermann Rupf-ek lagun eta arte-merkatari Daniel-Henry Kahnweiler-i Parisen erositako lan batzuk daude. 1907 eta 1908 artean eskuratu zituen lehen pintura horiek. Horrez gain, Picassok Kahnweiler-i egindako hiru erretratu daude, 1957koak.

Rupf eta Kahnweiler, Frankfurtoko Commerz-und Disconto-Bank-en ikasi zuten. 1902 eta 1904 artean Parisen izan ziren biak, Kahnweiler burtsako artekari-laguntzaile moduan eta Rupf Jacques Meyer Fils & Cie enpresan (gaur egun, Galeries Lafayette). Literaturarekiko eta musikarekiko interesa zuten biak eta elkarrekin joaten ziren antzezlanak eta kontzertuak ikustera. Louvre Museoan ematen zuten denbora, baita hainbat aretotan, arte klasikoa eta modernoak liluratuta. Ondoren, Rupf Londresera joan zen, eta 1905ean Bernara, jaioterrira, itzuli zen. Aurrerago koinatu izango zuen Ruedi Hossmann-en mertzerian lanean hasi zen, eta 1908an bazkide bihurtu zen eta enpresak "Hossmann & Rupf" izena hartu zuen. 1910ean Margrit Rupfekin ezkondu zen. Artelanak erosten jarraitu zuten Rupftarrak, haien irizpideei jarraiki; nolana ere, Parisen zegoen Daniel-Henry Kahnweiler-en laguntza berebizikoa izan zuten. Haren galeriaren bidez erosi ahal izan zituzten Fernand Léger-en (306. aretoa), Juan Gris (306. aretoa) eta gerora André Masson-en lan-multzoak. Kahnweiler-en eta Rupf-en laguntasuna luzea, bizi osokoa, izan zela erakusten dute gorde diren 800 eskutitz inguruk.

Rupf maiz joaten zen Parisera dendarako salgaiak erostera eta bertan Kahnweiler-ekin biltzen zen haren galerian eta artistak bisitatzera joaten ziren. Jadanik 1907an Pablo Picassoren, Georges Braqueren eta artista fauvisten lanak, Othon Friesz eta André Derain, besteak beste, erosi zituen. Horien artean daude Picassoren *Gizon burua* (*Tête d'homme*, 1908) eta Georges Braqueren *L'Estaque-ko etxeak* (*Maisons à l'Estaque*), Kahnweillerren galeriara L'Estaque, Frantziako hegoaldean, artista garai batez bizi izan zen herritik, zuzenean eraman zutena.

Hurrengo urteetan Rupf-ek Picassoren, Braqueren, André Derainen, Juan Grisen eta Maurice de Vlaminck-en lanak eskuratu zituen. Lehen Mundu Gerra arte, bilduma handitzen joan zen eta 30 artelan aukeratuen multzo bikaina osatu zuen; lan gehienak kubistak ziren.

Gerra hasi zenean, Rupf-ek Kahnweiler gonbidatu zuen Bernara, eta arte-merkataria Bernan geratu zen gatazka amaitu arte. Erbestean zela, hainbat testu idatzi zituen filosofiari eta arte-teoriari buruz. Gainera, garai hartako pertsonaia handiekin, adibidez, Hans Arpekin, harremana izan zuen —Arp Zürich-en bizi zen orduan (307. aretoan daude haren lanak ikusgai)—.

Areto honetan, 305.ean, aipatzekoa da Florian Slotawa-ren *Bernako oinak* (*Berner Sockel*, 2010) lana. Hermann eta Margrit Rupf Bilduma arretaz aztertu ondoren, artelanak eta historia, lau eskultura hautatu zituen artistak: *Hostoa-Enborra* (*Blatt-Torso*, 1963), Hans Arpena; *Margrit Rupf-Wirz* (1922), Max Fueter-ena; *Belaunikatutako biluzia* (*Nu agenouillé*, 1929), Henri Laurensena; eta *Etzandako behia* (*Liegende Kuh*, 1925), Ewald Mataré-na. Artelan bakoitzerako oina bat diseinatu zuen Slotawak, bikotearen etxeko altzariak erabiliz.

306. aretoa

Lehen Mundu Gerraren ondorengo urteetan, Rupftarrak bildumagintzan segitu zuten. 1920ko hamarkadaren hasieran, Georges Braqueren (305. aretoa), André Derain (305. aretoa), Juan Gris (206. aretoa), Henri Laurens (306. aretoa), Fernand Léger (306. aretoa), Paul Klee (307. aretoa) eta Louis Moillet (307. aretoa) artisten azken lanak erosi zituzten. Gerra aurretik moduan, artistek sortu eta gutxira eskuratzen zituzten obrak.

Ordutik aurrera, Kahnweiler-ek ezin izan zituen artista guztiakin harremanak gorde. Hala ere, beste artista batzuekin hasi zen lanean, esaterako, Paul Klee-rekin; Rupfen laguntzari esker, 1933an artista atzerrian ordezkatzeari lortu zuen.

Areto honetan Juan Grisen artearen garapena ikus daiteke, 1913tik 1925era. Era berean, Picassoren 1913ko lan bat dago, *Biolina horman zintzilik* (*Biolina*) [*Un violon accroché au mur* (*Le violon*)]; artelan hori gaur arte behin baino ez da izan Bernako Kunstmuseum-etik kanpo, 1941an, New Yorkeko MoMAN. Beste artista batzuk ere badaude, eta horiekin loturak ezartzen dira, besteak beste Fernand Léger —*Formen kontrasteak* (*Contrastes de formes*, 1913)— eta Henri Laurens. Azken horren artegintzaren eboluzioa ere agerian dago lanen hautaketan: hasierako lan kubistak eta geroko bolumen handiko eskulturak, emakumearen irudian arreta jartzen dutenak, aurki ditzakegu. Aretoko beste eskultura bat Donald Judd-en *Titulurik gabea 85-065 zk.* (*Untitled no.85-065*, 1985) da. Abstraktua da, aluminiozkoa, eta horma batean muntatzekoa. Juddek 1983 eta 1990 artean egindako modulu bidezko eta kolore biziko artelanen multzokoa da. Modulu guztiek altuera, sakonera eta zabalera bera dute. Koloreak aukeratzean, artistak ez zen saiatu konbinazio “harmoniko”rik ezta “disonante”rik egiten.

307 aretoa

Rupftarrak eta Paul eta Lily Klee adiskide minak ziren eta bildumagileek aldiro-aldiro erosi zituzten artelanak Kleeri 1913. urtea ezkeretik. Naziek Paul Klee irakasle zegoen Dessauko Bauhaus eskola itxi eta haren lana “gizagaldutako artetzat” jo zuten; ondorioz, Bernara alde egin behar izan zuen bizitzera. Bertan ezagutu zituen Rupftarrak eta haien harremana oso estua zenaren erakusgarri da Hermann eta Margriti haientzat egindako margolanak oparitzen zizkiela urtebetetzeak eta Gabonak iristen zirenean.

Bernako beste hainbat artista, zientzialari eta musikari lagundu zituzten Rupftarrak eta Hermann Rupf gogotsu aritu zen arte kritikak idazten Bernan arte garaikidearen ezagutza bultzatzeko. Esate baterako, 1909 eta 1931 urteen bitartean *Berner Tagwacht* aldizkari sozialdemokratan kritikak idatzi

zituen bere garaiko kultur politika kontserbadorea salatuz eta arte garaikidea ulertarazteko ahaleginak areagotzeko eskatuz.

1914. urtean erosi zizkioten lehenengo artelanak zuzenean Paul Kleeri, marrazki batzuk hain zuzen, eta 1931 eta 1933 urteen bitartean Klee Elkarteko kidea izan zen Hermann Rupf. Elkartea 1920ko hamarkadan eratu zen eta horri esker artistak dirusarrera osagarriak lortzen zituen, kide bakoitzak gutxienez 50 marko inperial ordaintzen baizituzten artistaren lanak baldintza berezietan erosteko aukeraren truke.

Klee luzaroan eri egon ondoren 1940. urtean hil zenerako Rupf tarrek haren 26 artelanen jabe ziren. Artistaren alargunak, Lily Kleek, bere kargu hartu zuen zendutako senarraren legatuaren kudeaketa eta Lily 1946an hil zenerako Rupf tarrek beste 17 artelan erosiak zeuzkaten.

Paul Klee Vasily Kandinskyren lankidea izan zen Dessauko Bauhaus eskolan eta adiskidetasun horri esker Rupf tarrek Kandinsky eta haren emazte Ninarekin harremanetan hasi ziren 1930eko hamarkadaren hasieran. 1933an ezagutu zuten elkar aurrez aurre baina euren arteko hasierako lotura ez zen artea izan; Rupfek diru kontuetarako aholkuak eman zizkion Kandinskyri. Izan ere 1934. urtean *Hots durunditsua (Klangvoll, 1929)* akuarela oparitu zion Kandinskyk haren “finantza-aholkulari suitzarrari” emandako laguntza eskertzeko. Rupf tarrek eta Kandinsky tarrek maiz ibili ziren elkar hurrengo urteetan eta Vasily 1944. urtean zendu ostean ere Nina Kandinsk Rupf tarren adiskidea izaten jarraitu zuen. Vasily Kandinsky bizirik zegoen bitartean artelan bakarra erosi zioten Rupf tarrek 1935. urteko udazkenean, *Tentsio lasaia (Tension tranquille)* delakoa, urte horretan bertan egindakoa. Gerora nekez sartu ziren Rupf bilduman Kandinskyren beste lan batzuk, guztira egun dituen 16ak bildu arte. 307. aretoan ikusgai dauden lanak 1916 eta 1940 urteen bitarteko aldia hartzen dute, hau da, aldi baterako Errusiara bueltatu zen unetik Parisen egin zituen azkeneko lanetaraino.

Bilduman leku gailena dute Rupfek 1939. urtean erositako lan bik: August Mackeren *Jatetxeko terrazan (Gartenrestaurant, 1912)* eta areto honetan ikus daitekeen *Etzandako behia (Liegende Kuh, 1925)* Ewald Mataré artistarena. Enkante historiko batean eskuratu zituen, Luzernan: “Alemaniako museoetako maisu modernoek pinturak eta eskulturak” saltzen zituzten. Hasiera batean, Rupf-ek zalantzak izan zituen, eta horrela azaldu zizkion Kahnweiler-i, bere hitzetan: “Luzernan egingo den Alemaniako koadroen salerosketaren inguruan, uste dut inork ez diela ezer eskaini behar, enkantean gastuak baino izan ez ditzaten tipo horiek eta ezer saldu ez dezaten. Zoragarria litzateke. Edo, posible balitz, merke-merke eskuratzea pinturak, inork gehiago eskaini gabe. Baina ezin daiteke guztia aurretik prestatu”. Azkenean, baina, aipatutako bi lan horiek eskuratu zituen. Rupf entzat, gainera, Mackeren lana eskuratzea garrantzitsua izan zen, hiru “lagun artista” —Klee, Macke eta Moillet— elkartu baitzituen bilduman, 1914an Tunisiara bidaiari joan zirenak.

Areto honetan azpimarratzen da Rupf Bilduma ez dela amaitutako bilduma bat, etengabe garatzen ari dela. Hans Arpen, Meret Oppenheim, Lucio Fontanaren eta ZERO taldearen lanek erakusketari bukaera ematen diote eta hura osatzen dute.

DIDAKTIKA: Rupftarrak, espiritu askeak

Didaktika proiektuaren barruan, Hermann eta Margrit Rupf protagonista dituen gunea prestatu du Museoak. Bertan Suitzako bikotearen filosofia irekia eta bizimodu berezia azalduko dira, baita haien arte-gustuak ere, eta garai hartako dokumentazio-argazkiak ikusteko aukera egongo da, pertsonalak zein haien lanbidearen ingurukoak, Paris eta Berlin hiriek, besteak beste, espiritu modernoan izan zutela islatzen dutenak.

Jarduerak

Solasaldia: *Ezagutu Rupftarrak*

Azaroak 9, asteazkena

Susanne Friedli, erakusketaren komisarioa, Rupftarren bildumagintzari eta espiritu askeari buruz mintzatuko da; ondoren, erakusketako artista batzuek solasaldi laburrak eskainiko dituzte.

Lekua eta ordua: Museoko Entzungela, 18:30. Gaztelaniarako aldi bereko interpretazioa.

Doako sarrerak; eskuragarri Museoko txarteldegian eta webgunean.

Partekatutako hausnarketak

Museoko profesionalak gidatutako bisitaldi hauen bidez ezagutu erakusketen obra esanguratsuenak, muntaiaren zokoak eta bestelako bitxikeriak.

Arte arduradunen ikuspegia

- *Hermann eta Margrit Rupf Bilduma*: azaroak 23, asteazkena. Petra Joos, erakusketaren komisarioa.

Funtsezko kontzeptuak

- *Hermann eta Margrit Rupf Bilduma*: abenduak 7, asteazkena. Luz Maguregui, Hezkuntza Koordinatzailea.

Topagunea eta ordua: Informazio-mahaia, 18:30ean. Sarrerak webgunean soilik salgai: 2 € Museoaren Lagunak / 3 € publiko orokorra (Museorako sarrera ez dago barne). Gutxienez 8 pertsona talde bakoitzeko; gehienez 20.

* Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

Hermann eta Margrit Rupf Fundazioa

Rupftarrak Suitzako lehen bildumatzailerik pribatuak izan ziren arte abstraktua haien bildumaren ardatzetako bat bihurtzen. 1954an haien artelanak dohaintzan eman zizkieten —250 lan inguru eta arte-liburu ugari—, fundazio gisa, Kunstmuseum Bern-i. Gaur egun, fundazioak artelanak biltzen jarraitzen du: gaur egungo lanak erosten ditu, aintzat hartuta Rupftarrek eskuratutako bilduma bikaina.

Hermann Rupf-ek Bernako arte-giroa babestu zuen, batzuetan horrek ardurak eta beldurrak pizten bazizkion ere. Hainbat sortzailearen mezenas izan zen eta, publikoarekiko konpromisoa zuenez, bildumako lanak maileguan uzten zituen. 1930eko hamarkadaren amaieran, bikoteak publikoari eskuragarri jartzeko bilduma non gorde behar zuten pentsatzeari ekin zion: hogeitun urteren buruan, 1954an, Hermann eta Margrit Rupf Fundazioa sortu zuten.

1956an bildumaren katalogazioa egin zuten eta lehenbiziko aldiz erakutsi zen Kunstmuseum Bern-en. Lehen urteetan, Hermann Rupf-ek gertutik ikuskatu zuen Fundazioaren jarduna eta artelan batzuk saltzea pentsatu zuen. 1961ean hil zen Margrit Rupf eta urte baten buruan senarra. Ordutik aurrera, Patronatuak hartu zuen eskuratzeen ardura.

Fundatzaileak 1960ko hamarkadan zendu ziren eta orduan Hermann eta Margrit Rupf Bilduman 41 margolan, 14 eskultura, 23 marrazki, 149 artelan grafiko eta jatorrizko grabatuak zituzten 32 liburu zeuden. Horiek guztiak Kunstmuseum Bern-era igaro ziren gordailuan. Horrez gain, Rupftarrak haien ondare guztia eman zioten Fundazioari, etorkizunean eskuratzeak egin zitzaten.

Azaleko Irudia:

Pablo Picasso (Malaga, 1881–Mougins, Frantzia, 1973)

Gizon baten burua (Tête d'homme), 1908

Olio-pintura ohol gainean

27 x 21 cm

Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern

© Sucesión Pablo Picasso (Malaga, 1881–Mougins, Frantzia, 1973), VEGAP, Madril, 2016.

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio Arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es


Prentsa irudiak:
Hermann eta Margrit Rupf Bilduma
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.es


Pablo Picasso (Malaga, 1881–Mougins, Frantzia, 1973)
D.-H. Kahnweiler-en erretratua II (Portrait de D.-H. Kahnweiler II), 1957
Litografia
65 x 49 cm
Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern
© Sucesión Pablo Picasso (Malaga, 1881–Mougins, Frantzia, 1973),
VEGAP, Madril, 2016



André Derain (Chatou, Frantzia, 1880–Garches, Frantzia, 1954)
Paisaia Cassisetik gertu (Paysage aux environs de Cassis), 1907
Olio-pintura mihise gainean
33x 41cm
Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern
© André Derain, VEGAP, Bilbo, 2016



Pablo Picasso (Malaga, 1881–Mougins, Frantzia, 1973)
Gizon baten burua (Tête d'homme), 1908
Olio-pintura ohol gainean
27 x 21 cm
Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern
© Sucesión Pablo Picasso (Malaga, 1881–Mougins, Frantzia, 1973),
VEGAP, Madril, 2016



Pablo Picasso (Malaga, 1881–Mougins, Frantzia, 1973)
Biolina horman zintzilik (Biolina) [Un violon accroché au mur (Le violon)], 1913
Olio-pintura eta harea mihise gainean
65 x 46 cm
Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern
© Sucesión Pablo Picasso (Malaga, 1881–Mougins, Frantzia, 1973),
VEGAP, Madril, 2016



Florian Slotawa (Rosenheim, Alemania, 1972)

Bernako oinak (*Berner Sockel*), 2010

Lau eskulturen multzoa, askotariko materialak

Neurri aldakorrak

Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern

© Florian Slotawa, VEGAP, Bilbo, 2016



Georges Braque (Argenteuil-sur-Seine, Frantzia, 1882–Paris, 1963)

Biolina eta arku (*Violon et archet*), 1911


Olio-pintura mihise gainean

46 x 33 cm

Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern

© Georges Braque (Argenteuil-sur-Seine, Frantzia, 1882–Paris, 1963),

VEGAP, Bilbo, 2016



Juan Gris (Madril, 1887–Boulogne-Billancourt, Frantzia, 1927)

Liburua eta pipa (*Livre et pipe*), 1925

Olio-pintura mihise gainean

27 x 35 cm

Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern



Donald Judd (Excelsior Springs, Missouri, AEB, 1928–New York, AEB, 1994)

Titulurik gabea 85–065 zk. (*Untitled, no. 85–065*), 1985

Aluminioa

30 x 120 x 30 cm

Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern

© Donald Judd, VEGAP, Bilbo, 2016



Fernand Léger (Argentan, Frantzia, 1881–Gif-sur-Yvette, Frantzia, 1955)


Natura hila (*Nature morte*), 1922

Olio-pintura mihise gainean

65 x 50 cm

Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern

© Fernand Léger, VEGAP, Bilbo, 2016



Meret Oppenheim (Berlin, 1913–Basilea, Suitza, 1985)

Aurpegia hodeian (*Gesicht in Wolke*), 1971

Rugosit eta zura, olio-pinturaz eta ur-margoz pintatua eta bernizatua

39 x 39 x 13 cm

Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern

© Meret Oppenheim, VEGAP, Bilbo, 2016



Paul Klee (Münchenbuchsee, Suitza, 1879–Muralto, Suitza, 1940)


Ilbetea lorategian (Vollmond im Garten), 1934

Olio-pintura inprimaziodun mihise gainean

50,3 x 60,1 cm

Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern

© Paul Klee's Estate/VEGAP, 2016



Hans Arp (Estrasburgo, Frantzia, 1886–Basilea, Suitza, 1966)

Lore-animalia (Blume-Tier), 1953

Zurezko erliebea, margotua eta Pavatex xafla gainean markoa jarria

48 x 53,5 cm

Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern

© Hans Arp, VEGAP, Bilbo, 2016



Vasily Kandinsky (Mosku, 1866–Neuilly-sur-Seine, Frantzia, 1944)

Banatutako horizontala (Horizontale divisée), 1935

Ur-margoa, tinta eta arkatza paper gainean

35 x 54 cm

Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbo, 2016



André Masson (Balagny-sur-Thérain, Frantzia, 1896–Paris, 1987)


Zintzurra egindako idia (Le bœuf égorgé), 1930

Olio-pintura mihise gainean

65 x 81 cm

Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern

© André Masson, VEGAP, Bilbo, 2016



Ezker-eskuin: Margrit Rupf-Wirz, Daniel-Henry Kahnweiler, emakume ezezaguna eta Hermann Rupf Mürren-en, ca. 1945. Argazkilari ezezaguna, Rupf Artxibategia, Kunstmuseum Bern



Ezker-eskuin: Margrit Rupf, Daniel-Henry Kahnweiler, Renée Wirz (gaur egun, Ziegler-Wirz) eta Hermann Rupf Mürren-en, ca. 1945. Argazkilari ezezaguna, Rupf Artxibategia, Kunstmuseum Bern

